



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko maiatzaren 31

71. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen erreko-nozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (19. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (19. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen erreko-nozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (20. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (21. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, 2021eko uholdeen ostean, lehen sektorearentzako laguntzen atzerapenari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Lizarrako Remontival HLHIPEko antolaketa-arazoei eta baliabide faltari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (22. or.).
- Galdera, 2022ko Irisgarritasun Plan Operatiboari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (23. or.).
- Galdera, Altsasuko Oinarrizko Osasun Eskualdeko osasun langile faltari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (24. or.).

- Galdera, BAMEak Oinarrizko Osasun Laguntzara erakartzeko eta bertan irauarazteko politikei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (25. or.).
- Galdera, gobernu zentralak erregaien eta elektrizitatearen prezioei buruz hartzen ari den erabakiek foru erkidegoaren diru-kutxari nola eta zenbateraino eragiten dioten jakitekoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, trafikoaren arloko eskumenaren transferentzia sinatzeari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (26. or.).
- Galdera, Nafarroak ondare historikoaren arloan jarduteko irizpideei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (26. or.).
- Galdera, adinekoendako egoitzak kreditatzeko eredu berriari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (27. or.).
- Galdera, foruzainen erretiro-adina aurreratzeko administrazio-prozedurari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, arrazoi ideologikoengatik gorrotozko delituei aurre egiteko neurriei buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, N-121 errepedeko “Olabeko zeharbidea” izenez ezagutzen den zatiko lanak esleitzeko kontratua aldatzeari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, 2/2022 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 23oa, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa, foru lege proiektu gisa izapidetzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (29. or.).
- Galdera, egoitzen eta autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako zerbitzuen kreditatze eta kalitatetarako irizpide komunak ezartzeko Espainiako Gobernuak proposaturiko akordioari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (29. or.).
- Galdera, Siemens Gamesa Renewable Energy erosteko eskaintza publiko boluntarioari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (30. or.).
- Galdera, ikus-entzunezkoen gordailu publiko bat sortzeko gaitutako aurrekontu-zuzkidurari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, gazteria eta landa eremuari buruz berriki eginiko ikerketaren emaitzen gainekoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, langileen plantilla organikoetako lanpostuen ezaugarriak zehazteko udal autonomiari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (32. or.).
- Galdera, Foruzaingoaren barruan adierazpen faxistak berri ere gertatzea ekidite aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (32. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko trenbide-konexioa dela-eta Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (33. or.).
- Galdera, enpleguari buruz Nafarroako Gobernuak darabilen aurreikuspenen gainekoa. Ramón Alzorric Goñi jaunak egin du (34. or.).
- Galdera, Expansión egunkarian duela gutxi argitaratutako DyB txostenari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (34. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendaria hautatzen baita (35. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendaria izendatzen baita (35. or.).
- Nafarroako Parlamentuan aldi baterako enplegua egonkortzeko Erabakia, enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen esparruan (36. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Legea, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko maiatzaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru Legea, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa**

### **HITZAURREA**

Nafarroako Parlamentuak, maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legearen bidez, Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen aldaketa bat onetsi zuen, legearen testuari xedapen iragankor bat gehitzekoa, zeinaren bidez ahalbidetzen baitzen 2022ko maiatzaren 30era arteko etenaldia ezartzea 1250 AzLU (Azienda Larriko Unitate) baino gehiagoko behi-aziendako abeltegiak Nafarroan instalatzeko abeltzaintza-baimenatarako eskaerak hartzeari eta baimen horiek emateari dagokionez eta jadanik badauden abeltegiak handitzeari dagokionez, handitze horren ondoriozko ustategiak 1.250 AzLU baino gehiagokoak suertatuz gero.

Neurri horren ziotzat hartu zen foru lege proiektu baten bidez arautu beharra zegoela Nafarroako ustategietan abereen osasun-baldintza hoberenak bermatzeko beharrezkoak diren tamaina- eta edukiera-betekizunak. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak konpromiso hori bere gain hartu zuen, horretarako jarraikiz martxoaren 20ko 31/2019 Foru Dekretua prestatzean, hain zuzen abeltzaintzako ustategiek eta horien instalazioek Nafarroako Foru Komunitatean

bete behar dituzten baldintza higieniko-sanitarioak, animalien ongizatekoak eta antolamendu zooteknikokoak ezartzen dituen prestatzean, egitimo lanaren ildoari.

Foru lege proiektua 2021eko abenduaren 22an aurkeztu zen Nafarroako Parlamentuan. Hala ere, ez zuen lortu onetsia izateko behar adinako babes parlamentariarik, eta Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak baztertu egin zuen 2022ko martxoaren 3an.

Azaldutakoa gorabehera, Nafarroako Parlamentuak askotan adierazi izan du bere borondatea, Europako "Baserritik mahaira" estrategiarekin eta biodibertsitatearen defentsarako estrategiek inkeraturiko abeltzaintza-ereduak sustatzekoa, jasangarritasunean oinarrituz egin dadin sektorearen garapena.

Xede horrekin, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa errege-dekretu proiektu bat izapidetzen ari da gaur egun, zeinaren bidez behitegien oinarritzko antolamendurako arauak ezarri nahi baitira, erantzun egokia ematearren sektoreak azken urteetan izandako bilakaerari, duen osagai sozial muntadunari eta iritsi duen profesionalizazio- eta nazioartekotze-maila altuari; hori guztia, ingurumenaren, biosegurtasunaren eta animalia-ongizatearen arloko erronka berriekin batera.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak jendaurreeratze-tramitean jarritako errege-dekretu aurreproiektuan behitegien gehienezko ekoizpen-ahalmena 850 AzLUan ezartzen da, eta Espainiako Konstituzioaren 149.1. artikuluko 13, 16 eta 23. arauak aipatzen ditu eskumen-titulu gisa, zeinek Estatuari esleitzen baitiote eskumen eskusiboa, hurrenez hurren, jarduera ekonomikoaren planifikazio orokorraren oinarriari eta koordinazioari, osasungintzaren oinarriari eta koordinazio orokorrari eta ingurumen-babeserako oinarritzko legediari dagokienez.

Bestalde, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 50. artikuluko 1. apartatuak nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloetako eskumen eskusiboa aitortzen dio Nafarroari, bere foru araubidea dela-eta eskuratua, ekonomiaren antolamendu orokorraren barruan.

Nafarroak duen eskumen-sorta zabalak, bai eta Parlamentuan adierazia izan den borondateak ere, lurraldearen, gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta abere-osasunaren garapenean jasangarritasuna lortzekoak, agerian jartzen dute lanean jarraitu beharra dagoela, Nafarroako ustiategietan abere-osasuneko baldintza hoberenak bermatzeko foru arau bat taxutu eta oneste alde-ra. Arau horrek errespetatu beharko ditu estatu-arauek ezartzen dituen gutxieneko eta oinarrizko babes-baldintzak, baina zilegi izanen da babesneurri gehigarriak ezartzea, hori justifikatzen duen arrazoirik egonez gero.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legean ezarritako epea aldatzea, halako moduz non, abeltzaintza-ustiategiek izan beharreko edukiera eta behitegien antolamenduaren beste zertzelada batzuk zehazten diren bitartean, Nafarroan behi-aziendaren abeltzaintzaren 1.250 AzLU-ko edukiera-muga mantenduko baita; hori guztia, behi-aziendaren sektore-antolamenduko baldintzei eustearren.

Hori dela-eta, aldatu egiten da Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea, jarraian adierazitako moduan:

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorra aldatzen da. Testu hau izanen du:

«Hirugarren xedapen iragankorra. Eteeta.

1. 2023ko maiatzaren 30era arte ez da eskabiderik hartuko, ez eta abeltzaintza-baimenik emanen ere, 1.250 AzLU baino gehiagoko edukiera duten behi-aziendako abeltzaintza-ustiategiak jartzeko.

2. Halaber, ez da eskabide berririk hartuko, ez eta baimen berririk emanen ere, jadanik badauden behi-aziendako abeltzaintza-ustiategiak handitzeko, baldin eta handitzearen ondoriozko ustiategia 1.250 AzLU baino gehiagokoa izanen bada.

3. Aurreko apartatuetan ezarritako edukieramuga ordeztuko da estatu-araudiak oinarrizko gisa eta kasua bada ezartzen duenarekin, azken hori txikiagoa izanez gero».

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamu-nean.

---

## **Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko maiatzaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario gaituentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamenaren onetsi zuen..

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organiko-

aren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldi-baterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa**

### HITZAURREA

Enplegu publikoan aldi-baterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen helburua da egiturazko aldi-baterakotasuna ehuneko 8ren azpitik kokatzea administrazio publikoetan.

Horretarako, beste neurri batzuen artean, lege horrek ezartzen du administrazio publiko guztietan aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesua abiaraziko dela, bi ildo nagusitan. Alde batetik, legearen 2. artikulua baimentzen du enplegu publikoa egonkortzeko hirugarren prozesu bat, gehitzen zaiena 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 19.Bat.6 artikuluan arautuari eta 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19.Bat.9 artikuluan arautuari, eta barnean hartuko dituen 2020ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan bederen etenik gabe eta aldi baterako beteta egon diren egiturazko lanpostuak, aurrekontu-zuzkidura dutenak, horiek jasota egon nahiz ez egon lanpostu-zerrendetan, plantilletan edo administrazio publiko desberdinek giza baliabideen antolaketarako erabiltzen dituzten bestelako bitartekoen barnean.

Bestetik, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPO-ETB) 61. artikuluen 6. eta 7. apartatuetan ezartzen denarekin bat etorritik, seigarren xedapen gehigarrian aurreikusten da deialdia eginen dela, bakarra eta apartekoa, 2.1 artikuluan ezarritako baldintzak bete eta 2016ko urtarrilaren 1aren aurretik etengabe aldi baterako langileek okupatu dituzten lanpostuak lehiaketa bidez betetzeko.

Horrez gain, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian ezartzen denez, seigarren xedapen gehigarrian jasotako egonkortze prozesuetako deialdietan sartu behar dira 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik aldi baterako langile batek bete dituen egiturazko lanpostu hutsak.

Eskumen tituluei dagokienez, azken xedapeneko lehenengoak dio 20/2021 Legea Espainiako Konstituzioaren 149. artikuluen 1. apartatuko 7. eta 18. zenbakien babesean ematen dela, non Estatuari eskumen eskusiboa ematen baitzaio lan arloko legeriari dagokionez –ezertan eragotzi gabe horren betearazpena autonomia erkidegoe-

tako organoen ardura izatea– eta administrazio publikoen araubide juridikoaren eta haien funtzionarioen estatutu-araubidearen oinarriari dagokienez.

Halaber legea 149.1.13 artikuluen babesean ematen da, non Estatuari ematen baitzaio eskumena jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriari eta koordinazioari dagokienez.

Hamargarren xedapen gehigarriak ezartzen du, bestalde, legea Nafarroako Foru Komunitateari aplikatuko zaiola Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako zertzeladekin.

Azken arau horrek, 46. artikuluan, Nafarroak toki araubidearen arloan duen eskumen historikoa aitortzen du foru araubidearen ardatz nagusien artean. Hala, aipatu manuaaren arabera, Nafarroari dagozkio “gaur egun dituen ahalmen eta eskumena, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan, 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege Dekretu Itunduan eta bere xedapen osagarrietan erabakitakoren babesean”, bai eta “aurrekoekin bateragarriak izan eta Estatuko oinarrizko legeriaren arabera autonomia erkidegoei edo probintziei dagozkiekeenak” ere.

Xedapen osagarri horien artean nabarmentzen da Nafarroako Udal Administrazioarako Erregulamendua, 1928ko otsailaren 3koa. Garai batean garrantzi handiko arau multzoa izan zen Foru Komunitateko Toki Administrazioaren araudiaren barnean, eta, besteak beste, Nafarroan araudi propioa bazuten gaien sorta bat biltzen zuen. Horietako bat udal idazkariei buruzkoa zen.

Gaur egun, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak bere 234. artikuluan ezartzen du ezen, arau orokor gisa, idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako eginkizun publiko beharrezkoen egikaritzea Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza duten funtzionarioentzat ez beste inorentzat erreserbatuta egonen dela.

Arau beraren 236. artikulua dioenez, halaber, Nafarroako Gobernuan Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuari dagokio hautatu eta izendatzea foru gaikuntzadun langileei erreserbatutako idazkaritza eta/edo kontu-hartzailetzako eginkizun publiko beharrezkoak bete behar dituzten langileak.

Hain zuzen ere Nafarroako toki-entitateetako idazkaritza eta kontu-hartzailetzako postuetan behin-behinekotasun egoera larria pairatzen dute,

urteak joan urteak etorri luzatuz joan dena funtzionario bitartezko lanpostu-betetzea baldintzatu egin delako Nafarroako toki-entitateen maparen balizko berregituraketara.

Gainera, foru-gaikuntzadun funtzionario urriek duela ia hamar urtetik ezin izan dute merezimendu lehiaketetan parte hartu Nafarroako toki-entitateetako beste lanpostu foru-gaikuntzadun batzuetara aldatu ahal izateko, lanpostu hutsak betetzeko dagoen araugintza-blokeoa dela-eta.

Bestetik, azken hamarkadan ez da inongo hautaprosesutarako deialdirik egin foru gaikuntza oposizio-lehiaketa sistemaren bidez lortzeko, txanda irekian.

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreforma-rako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak, zeinak eskualdea definitu baitzuen Nafarroako toki-entitate mota berri gisa, laugarren xedapen iragankorrean ezartzen du behar diren jarduketak hasi behar direla idazkaritza eta kontu-hartzailtzako lanpostuak funtzionarioek bete ditzaten, eskualdeak sortzeko bosgarren foru legea onetsi eta hiru hilabete epean, eta, betiere, arau horrek indarra hartu eta hiru urteko epea iragan baino lehen.

Oraindik eskualderik sortu ez denez, kontua da ezen, gaur egun aplikatzekoa den araudiaren arabera, funtzionarioekin idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu jakin batzuk baizik ez daitezkeela bete; gainerakoak baldintzaturik daude toki mapara eta udalez gaindiko toki-entitate baten eraketara.

Arestian aipatutako 4/2019 Foru Legearen laugarren xedapen iragankorrak, beraz, kontraesana sortu du enplegu publikoan aldibaterakotasuna murriztea bilatzen duen 20/2021 Legearen oinarritzko printzipioekin. Izan ere, hitzurrean ederki adierazten den bezala, edozein erakundetan beharrezkoa eta zentzuzkoa izanik ere halako aldibaterakotasun tasa bat, ez da hala gertatzen aldibaterakotasuna egiturazko bihurtzen denean, halako moldez non zenbait sektoretan, Nafarroako toki-entitateetan kasu, ia langileriaren ehuneko 90eko tasara iritsi baita idazkari lanpostuei dago kienez.

Europar Batasuneko zuzenbideak ongi dioen bezala (Kontseiluak emandako 1999ko ekainaren 28ko 1999/70/EE Zuzentaraua, iraunaldi mugatuko lanari buruzko EGK, UNICE eta CEEP-en Esparru Akordioari buruzkoa), kontratazio mugagabeak lan harreman mota ohikoena izan behar du bi helburu nagusi lortzeko: batetik, iraupen mugatuko lanaren kalitatea hobetzea, diskriminazio ezaren printzipioaren errespetua bermatuta; eta bestetik, esparru bat ezartzea, iraupen mugatuko ondoko

ondoko kontratu edo lan-harremanak erabiltearen abusua ekiditeko.

Hala, diskriminazio ezaren printzipioa oinarritzat hartuta, esparru akordioaren 4. klausulak aldi baterako langileen eta finkoen arteko parekatzea ezartzen du, bi langile motek araubide juridiko desberdinak izatea justifikatzen duen arrazoi objektiborik izan ezean.

Bestalde, esparru akordioaren 5. klausulak aurreikusten du aldi baterako izendapenen abuzuko erabilera eragozteko neurriak hartzea. Klausula horrek zuzeneko eraginik ez duen arren, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (hemendik aurrera, EBJA) behin eta berriz esan du epaile nazionalak dagokiela abusua zehaztea, eta zuzenbide nazionalaren esku dagoela konponbide eraginkor eta disuasiozkoak aplikatzea; agintari nazionalak premiatzen ditu disuasiozko neurri eraginkorrak har ditzaten eta, hala behar denean, argi eta garbi zigor dezaten aldibaterakotasun-abusua.

EBJAren jurisprudentziak azpimarratu egiten du, gainera, aldi baterako langileen eta finkoen araubide juridikoen arteko aldean oinarri bakarra izan behar dela arrazoi objektiboak egotea, frogatzen ahal dutenak desberdintasun horren beharra dagoela helburua lortu ahal izateko.

Testuinguru horretan, 20/2021 Legeak, Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurri buruzkoak, prozedura-sail bat ezartzen du zenbait baldintza betetzen dituen aldi baterako enplegua egonkortzeko; eta, horrekin batera, erreformatu egiten du Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia, neurri eraginkorrak antolaturik, etorkizunari begira aldibaterakotasun-abusuari eta -iruzurrari aurrea hartzeko eta horiek zigortzeko, eta, azkenik, giza baliabideak hobeki kudeatzeko moduko lanabes-ekarpena eta plangintza-kultura sustaturik.

Nafarroak Toki Administrazioaren arloan duen eskumen historikoa baliaturik eta foru lege honen bitartez, hiru helburu lortu behar dira: lehenik eta behin, 20/2021 Legearen oinarritzko izaera dela-eta, Nafarroako toki-entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetarako antolatu beharra dago aldi baterako enplegua egonkortzea ahalbidetuko duten prozesuak, arau horretan ezarritako baldintzak betez, aldibaterakotasun-abusuko egoera historikoa eta larria jasaten baitute.

Era berean, beharrezkotzat jotzen da, egonkortze prozesu horien aurretik, foru gaikuntza duten funtzionarioei aukera ematea hutsik dauden lanpostu guztien arteko mugigarritasunerako eskubi-

dea baliatzeko, ia hamar urte joan ondoren gaikuntzadun funtzionarioen arteko merezimendu lehiaketaren bidez lanpostuak betetzeko prozesuetarako deialdirik egin gabe.

Horren ildotik, 20/2021 Legeak berariaz adierazten du lanpostuak betetzeko mugikortasuneko edo barne igoserako mekanismo aurretiazkoak bateragarriak izanen direla egonkortze prozesuekin.

Horretarako, foru lege honek aurreikusten du gaikuntzadun funtzionarioen mugigarritasuna egotea lanpostu huts guztien artean, eta halaber ezartzen du ezen, foru-gaikuntzadun funtzionarioen artean lanpostuak betetzeko lehiaketa bereziak amaitzen direnean, hautaprosesu baterako deialdia eginen dela, txanda irekian, oposizio-lehiaketa sistemaren bidez foru gaikuntza lortzekoa.

Txanda irekiko deialdi horretan –2012tik eginen den lehena– eskainiko dira foru-gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatuak izan eta lekualdatze-lehiaketa bereziaren xede izanik lehiaketa horretan betetzen ez diren lanpostuak, ez badaude aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaprosesuetan eskaini beharreko lanpostu hutsen zerrendan.

Azkenik, zenbait manu aldatu behar dira bai Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean, bai Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legean, halako moldez non Nafarroako toki-entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak funtzionarioekin betetzea behin betiko bereiziko baita Nafarroako toki maparen berregituratze administratibotik, ekiditearren berriro sortzea denboran luzatutako aldibaterakotasun-egoerak, hori Europako zuzenbidearen eta 20/2021 Legearen beraren kontrakoa baita. Lege horretan ezarritako neurriak oinarritzekoak dira, eta horiek gure foru araudian txertatu beharra dago.

Gorago adierazi den bezala, funtzio publiko beharrezkoak dituzten lanpostuak funtzionarioz behin betiko betetzea baldintzatu edo eteten denean toki-entitateen egituraketa aldatzearen mende egonaraziz, urratu egiten dira bai Europar Batasuneko zuzenbidearen oinarriak bai 20/2021 Legearenak berarenak. Hain zuzen, lege horrek oinarritzeko izaera dauka, eta administrazio publiko guztiei aplikatu behar zaizkien printzipio batzuk biltzen ditu.

Kontuan har bedi aipatu araua eman dela Estatuak administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarrien gain eta haien funtzionarioen estatutu-araubidearen gain duen eskumenaren babesean; eta, alde horretatik, Nafarroari dagokio-

la, Foruaren Hobekuntzaren 49. artikulua araberako, Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidearen gaineko eskumen eskusiboa, betiere mugatzat edukita, alabaina, Estatuak oinarritzeko legeriak funtzionario publikoei aitortzen dizkien funtsezko eskubide eta betebeharren errespetua.

Horrela, foru gaikuntza duten funtzionarioen kolektiboarentzat aldi baterako enplegua egonkortzeko prozedurak antolatzearekin batera, Foru Komunitateari lege-araudi berri bat ematen zaio, bermatzen duena Nafarroako Toki Administrazioan beharrezkoak diren funtzio publikoetan aritzeari erreserbatutako lanpostuak betetzeko eta eskuratzeko sistemaren normalizazioa, halatan desblokeaturik gaur egun indarrean dauden legegintzako neurriek berek sortutako egoera.

Hori guztia egiten da, gainera, 6/1990 Foru Legearen X. tituluan esku sartu gabe, zeren eta, titulu horren osotasunari eta 4/2019 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorrari eutsiz, iraupena bermatzen baitaie bai egungo administrazio zerbitzuen batasunei –ordeztuko dituzten eskualdeak eratu arte, kasua denean–, bai eta 1.500 edo 3.000 biztanle baino gutxiagoko toki-entitateetako idazkari edo kontu-hartzaile lanpostuei, hurrenez hurren, harik eta eskualde bakoitza sortzeko foru legeak indarra hartzen duen arte, aipatu xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera eta 6/1990 Foru Legearen 361.1.e) artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Kontuan izan behar da aipatu araudiak dagoeneko aurreikusten duela iraungi beharreko egoera pertsonal gisa mantentzeko, bertan adierazitako zertzeladekin, 1.500 bizilagun baino gutxiagoko udaletako idazkari lanpostuak, baldin eta eskualde bakoitza sortzeko foru legeak indarra hartzen duen unean lanpostu horiek beteta badaude Nafarroako Foru Komunitateak gaitutako funtzionarioekin.

Helburu horiek lortze aldera, foru lege honek hamar artikulua eta xedapen indargabetzaile bat biltzen ditu.

Lehenengo artikulua foru gaikuntza duten funtzionarioen arteko lehiaketa berezia arautzen du lanpostuak betetzeko. Hurrengo manuan arautzen diren hautapen prozesuen aurretik eginen da lehiaketa hori.

Salbuespenezko prozedura da, 6/1990 Legearen 247. artikulua eta hurrengoek gaikuntzadun funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketaren bitarteko lanpostu-betetzeari begira orokortasunez aurreikusten duten prozeduraz bestelakoa, arau horretako zenbait zehaztapen aplikatu beha-

rrekoak badira ere foru lege honek arautu gabekoak diren alderdietan.

Lehiaketa horrek foru gaikuntza duten funtzionarioen mugigarritasuna ahalbidetuko du Nafarroako toki-entitateetan hutsik dauden idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu guztien artean. Lanpostu hutsen hasiera-zerrendari, zeina foru-gaikuntzadunei dagokienez lan publikoaren eskaintzaren pareko figura baita, hasierako onespena ematen zaio foru lege honen eranskinean, eta zerrenda horretan berariaz adierazten da zer lanpostu hutsak betetzen dituzten aldi baterako enplegua egonkortzeko baldintzak, zeinak ezarrita baitaude Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean.

Jarraian, arauaren 2. artikulua ezartzen du, behin amaituta daudelarik foru-gaikuntzadun funtzionarioen arteko lanpostu-betetze lehiaketa bereziak, bi motatako hautaprosesuetarako deialdiak eginen direla, hurrengo artikuluetan zehazten direnak. Lehenik eta behin, 3. artikulua aurreikusten du, gorago adierazi den moduan, foru gaikuntza lortzeko hautaprosesu bat egitea txanda irekiko deialdian, oposizio-lehiaketaren bidez.

Deialdi horretako lanpostuak izanen dira foru-gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak, zeinak, lekualdatze lehiaketa bereziaren xede izan ondoren betegabe suertaturik, ez baitaude jasota aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaprosesuetan eskaini beharreko lanpostu hutsen zerrendan.

Jarraian, 4. artikulua aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaprosesuak arautzen ditu 20/2021 Legeko jarraibideen ildotik, bereizketa eginez oposizio-lehiaketa bidez eginen direnen eta merezimendu lehiaketaren bidez egonkortuak izateko baldintzak betetzen dituzten artean, eta zenbait xedapen komun ezartzen ditu bi prozesuetarako. Xedapen horiek 5., 6. eta 7. artikuluetan garatzen dira.

Halaber, 8. artikuluan zenbait arau jasotzen dira, berdin aplikatzen ahal zaizkienak deialdi irekian oposizio-lehiaketaren bidez foru gaikuntza lortzeko hautaprosesuari nahiz aldibaterakotasuna egonkortzeko hautaprosesuei; ildo horretan, nabarmendu behar da prozesu horiek paraleloki eta koordinatuta eginen direla, eta deialdi bakarren bidez edo zenbait deialdiren bidez antolatzen ahalko direla.

Eraginkortasun administratiboarekin lotutako arrazoiengatik, eta bat etorririk Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 252. artikuluan ezarritakoarekin,

lanpostuez egun berean jabetuko dira 1. artikuluan aurreikusten diren merezimendu-lehiaketa berezietan lanpostua lortzen dutenak eta 4.etik 7.era bitarteko artikuluetan aurreikusitako hautaprosesuen ondoriozko foru gaikuntza lortzen dutenak.

Ondoren, 9. artikulua aldatu egiten du Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 247. artikulua 2. apartatua, funtzionario bitarteko lanpostu-betetzeari lege babesa ematearren ez bakarrik uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 243.2, 244.2 eta 361.1.e) artikuluetan jasotako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen kasuan, baizik eta administrazio zerbitzuen batasunetako lanpostu hutsenean, plantilla organikoko lanpostu propioak dituzten 1.500 edo 3.000 biztanle baino gutxiagoko toki-entitateetakoenean eta kontu-hartzaile lanpostu espezifikoak dituzten mankomunitateetako lanpostuenean ere, aipatu manuak ezartzen duenarekin bat.

Aurrekoaren ildo beretik, artikulua horrek berak 6/1990 Foru Legearen 248. artikulua 1. apartatuko a) letra aldatzen du, horren testua 247. artikulua aldatzeko erabiltzeko.

10. artikulua Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen bosgarren xedapen iragankorreko 2.etik 5.era bitarteko apartatuak ere aldatzen ditu, interpretazioari eta aplikazioari buruzko zalantzak eragiten zituzten zenbait alderdi argitzearen haien testuan.

Era berean, foru legearen gainerakoan ezarritakoarekin bat etorriz, arauak xedapen indargabetzailerik ere badauka, zerikusia duena aipatu 4/2019 Foru Legearen laugarren eta bosgarren xedapen iragankorrekin, haien xedapenak bateraezinez direlako 20/2021 Legean ezarritakoekin eta foru lege honek egiten duen araubide berriarekin, zeinak ahalbidetzen baitu foru-gaikuntzadun lanpostuak modu normalean betetzea, ez dadin berriz gerta behin-behinekotasun egoera abusuzkoak sortzen dituen araugintzazko eragozpeneko egoerarik.

Foru lege honen bitartez erantzuna ematen zaio eskakizun historiko bati eta behin betiko konpontzen da aldibaterakotasun iraunkorraren arazoa, duela hogeita hamar urte baino lehenagoetik idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu askori eragiten diena Nafarroako toki-entitateetan. Horretarako, hertsiki funtzionario bitartekoa den zerbitzu bat bermatzen da funtzio publikoetan, gure Foru Komunitateko herritarrek hurbilen dituzten administrazioetan zerbitzu publikoaren funtzionamendua



eta zerbitzu-ematea bera behar bezalakoak izateko beharrezkoak eta funtsezkoak diren horietan.

**1. artikulua.** Lehiaketa berezia, lanpostuak foru-gaikuntzadun funtzionarioen artetik betetzeko.

1. Foru lege honen 2. artikuluan araututako hautaprosesuak egin aurretik, lanpostuak foru-gaikuntzadun funtzionarioen artetik betetzeko lehiaketa berezia eginen da.

Lehiaketa horien xedea izanen da merezimen- du lehiaketaren bidez betetzea Nafarroako toki-entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu guztiak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 247.2 eta 247.3 artikuluetan jasota egonik hutsik daudenak.

2. Horretarako, foru lege honen eranskinen onesten da Nafarroako toki-entitateetan hutsik dauden idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen hasiera-zerrenda, zeinean berariaz adierazten baita zeinek betetzen dituzten aldi baterako enplegua egonkortzeko baldintzak, Enplegu publikoan aldi baterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezar- tzen direnak.

Hogei egun naturaleko epea ezartzen da, foru lege honek indarra hartu eta biharamunetik aurre- ra zenbatuko dena, informazio publikorako eta aipatu hasiera-zerrendari alegazioak aurkezteko.

3. Aurreko apartatuan ezarritako epea amaitu eta, alegaziorik aurkezten bada, horiek aztertu ondoren, Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuak, lanpostuak betetzeko aipa- tu lehiaketan deialdia egin aurretik, funtzionario gaituentzat merezimendu lehiaketan eskainiko diren idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen behin betiko zerrenda onetsiko du eta Nafarroako Aldiz- kari Ofizialean argitaratuko du. Berariaz adierazi beharko da zein lanpostu hutsek betetzen dituzten aldi baterako enplegua egonkortzeko baldintzak.

4. Lanpostuak betetzeko lehiaketa berezian parte hartzeari, hautapen-epaimahaiei eta merezi- mendu-baremoen zehaztapenari dagokienez, hel- duko zaio Nafarroako Toki Administrazioari buruz- ko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 249. artikuluan eta hurrengoetan orokortasunez ezarri- takoari, ezertan eragotzi gabe foru lege honetan xedatutako berezitasunak.

5. Kontu-hartzaile lanpostuak foru-gaikun- tzadunen artetik betetzeko lehiaketa berezira- ko deialdia eginen da amaituta daudenean mailaz igotzeko prozedurak, Nafarroako Toki Administra- zioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru

Legearen bosgarren xedapen iragankorrean aipa- tzen direnak.

Aipaturiko lehiaketa berezian berariaz baloratu- ko da, gutxienez ere guztizko puntuazioaren ehu- neko 30ekin, A taldeko kontu-hartzaile lanpostura- ko gaikuntza lortu izana deialdi publikoan, txanda irekian, oposizio-lehiaketa sistemaren bidez.

6. Lanpostu hutsak betetzearen ondorioz suertatzen diren lanpostu hutsak sartuak izanen dira lanpostu-betetze lehiaketa berezian esleituri- ko lanpostu hutsari legokiokeen egonkortze- hautaproseduraren.

7. Foru-gaikuntzadun funtzionarioen arteko aipatu lehiaketetan lanpostua lortzen dutenek lan- postuaren jabetza hartuko dute foru lege honen 8. artikuluan ezartzen denari jarraituz.

**2. artikulua.** Lanpostuak foru-gaikuntzadun funtzionarioen artetik betetzeko lehiaketa berezia- ren ondorengo hautaprosesuak.

Amaituta daudenean foru-gaikuntzadun fun- tzionarioen artetik lanpostuak betetzeko lehiaketa bereziak, aurreko artikuluan araututakoak, Nafa- rroako Foru Komunitateko Administrazioak 3.etik 8.era bitarteko artikuluetan arautzen diren hauta- prosesuatarako deialdia eginen du. Prozesu horien taxuketan beti bermatuko dira lehia librea- ren, berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasu- naren eta publikotasunaren printzipioak.

**3. artikulua.** Hautaprosesua, foru-gaikuntza lortzeko deialdi bidez, txanda irekian, oposizio- lehiaketa sistemaren bidez.

Foru-gaikuntzadun funtzionarioentzat erreser- batuak izanik lekualdatze lehiaketa berezian bete- tzen ez diren lanpostuak, ez baldin badaude aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaprosesue- tan eskaini beharreko lanpostu hutsten zerrendan, esleituko zaizkie, Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuaren titularrak izen- dapena egin ondoren, Nafarroako Toki Adminis- trazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Lege- aren 245. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera txanda irekiko oposizio- lehiaketaren deialdian gaikuntza lortzen dutenei, albo batera utzi gabe arau honetan ezarritako berezitasunak.

Oposizio- eta lehiaketa-faseek % 70eko eta %30eko balorazio proportzionala izanen dute hurrenez hurren, ezertan galarazi gabe euskara- ren balorazio gehigarriko aplikatzekoa den arau- diak ezartzen duena.

**4. artikulua.** Aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaprosesuak.

20/2021 Legearen jarraibideei heldurik, aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaprosesuen deialdiak eginen dira, bereizirik oposizio-lehiaketa bidez eginen direnak eta merezimendu lehiaketaren bidez egonkortuak izateko baldintzak betetzen dituztenak.

**5. artikulua.** Aldi baterako enplegua oposizio-lehiaketa bidez egonkortzeko hautaprosesua.

1. Foru Komunitateko Administrazioak aldi baterako enplegua oposizio-lehiaketaren bidez egonkortzeko hautaprosesu baterako deialdia eginen du. Prozesu horretan honako hauek sartu behar dira: Nafarroako toki-entitateetako egiturazko idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu huts egiturazkoak, zeinak, lanpostu-zerrendetan, plantillan edo giza baliabideak antolatzeke bestelako tresna batean egon zein ez egon, aurrekontu-zuzkidura edukirik 2020ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan bederen etenik gabe aldi baterako okupatuta egon baitira.

2. Oposizio- eta lehiaketa-faseek % 60ko eta % 40ko balorazio proportzionala izanen dute, hurrenez hurren, ezertan galarazi gabe euskarren balorazio gehigarriko aplikatzekeoa den araudian ezarritakoa.

Merezimenduen balorazioan kontuan hartuko dira, batez ere, Nafarroako toki-entitateetako idazkaritza eta kontu-hartzailetako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Oposizio-faseko ariketak kanporatzaileak izaten ahalko dira.

Lehiaketa-fasearen ehuneko 45eko balorazio berariazkoa emanen da lanposturik lortu gabe gainditu egin bada Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza lortzeko deialdietakoren bat, eta Nafarroako toki-entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetarako oposizio-lehiaketako sistemaren bitartezko sarbidea.

**6. artikulua.** Salbuespenezko hautaprosesua, iraupen luzekoa den aldi baterako enplegua merezimendu-lehiaketa bidez egonkortzekoa.

1. Foru Komunitateko Administrazioak, behin bakarrik eta salbuespenez, merezimendu-lehiaketaren bidezko hautaprosesu baterako deialdia eginen du honako lanpostu hauek betetzeko: Nafarroako toki-entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu huts egiturazkoak, zeinak, lanpostu-zerrendetan, plantillan edo giza baliabideak antolatzeke bestelako tresna batean egon zein ez egon, aurrekontu-zuzkidura edukirik

2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik aldi baterako okupatuta egon baitira.

Deialdian honako lanpostu hauek ere sartuko dira: Nafarroako edozein toki-entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu huts egiturazkoak, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik aldi baterako bete badituzte horrelako lan harremana duten langileek.

2. Merezimenduen balorazioan kontuan hartuko dira, batez ere, Nafarroako toki-entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetan emandako zerbitzuak, albo batera utzi gabe euskarren balorazio gehigarriko aplikatzekeoa den araudian ezarritakoa.

Merezimendu-lehiaketaren ehuneko 45eko balorazio berariazkoa emanen da lanposturik lortu gabe gainditu egin bada Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza lortzeko deialdietakoren bat, eta Nafarroako toki-entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetarako oposizio-lehiaketako sistemaren bitartezko sarbidea.

**7. artikulua.** Aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaprosesuetarako xedapen komunak.

Honako arau hauek bi egonkortze-hautaprosesuetan aplikatzekeoak izanen dira:

1. Aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaprosesuetarako deialdiak 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratu beharko dira, eta prozesu horiek 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebatzi beharko dira.

2. Deialdi-ebaztetik ezin izanen da inolaz ere eratorri gastu gehikuntzarik, ez eta idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen kopurua handitzerik ere.

3. Diruzko ordain hau emanen zaie aurreko apartatuetan arautzen diren aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaprosesu berezietatik bat ere ez gainditzeagatik Nafarroako toki-entitateetako lan-harremana amaitzen zaien aldi baterako administrazio-kontratudun langileei, jardunean halakotzat daudelarik: hogeitau eguneko ordainsari finkoa zerbitzuan lan egindako urte bakoitzeko, eta urtebete baino gutxiagoko aldiak hilabeteka hainbanatuko dira, gehienez ere hamabi hilabetetaraino.

4. Egonkortze-hautaprosesuetan parte ez hartzeak ez du ezein kasutan sortuko diruzko ordaina jasotzeko eskubiderik.

5. Aldi baterako betetze etengabearen kontzeptuari dagokionez, etenik ez dela izan ulertuko da baldin eta lanpostua egiazki berriro bete bada hiru hilabete baino gehiagokoa ez den epean.

6. Funts berezi bat sortu eta zuzkituko da, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko Funtsari atxikitako diruzaintza-gerakinaren kargura, osoki pagatze aldera toki-entitateak ordaindu beharrean suerta litezkeen kopuruak, eratorriak direnean Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaprosesuetatik, foru lege honek arautzen dituen horietatik.

**8. artikulua.** Hirugarren artikulutik zazpigarrenera bitartekoetan araututako hautaprosesuek amankomunean dituzten xedapenak.

1. Hirugarren artikulutik zazpigarrenera bitartekoetan araututako hautaprosesuak paraleloki eta koordinatuta eginen dira, eta deialdi bakarrean edo bat baino gehiagotan gauzatzen ahalko dira.

2. Eraginkortasun administratiboarekin lotutako arrazoiengatik, eta bat etorritz Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 252. artikuluan ezarritakoarekin, 1. artikuluan aurreikusten diren merezimendu-lehiaketa berezietan lanpostua adjudikatzen zaienak eta 3.etik 7.era bitarteko artikuluetan aurreikusitako hautaprosesuen ondorioz foru-gaikuntza lortzen dutenak egun berean jabetuko dira izendatuak izan direneko lanpostuaz.

3. Hautaprosesuetan parte hartu eta, horiek gainditu ez arren, deialdi bakoitzean nahikotzat jotzen den puntu kopurua behintzat lortzen dutenak sartuak izanen dira administrazio-araubideko aldi baterako kontrataziorako izangai-zerrenda batean, eskaera egiten duten Nafarroako toki-entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetako eginkizunetan aritzeko.

Txanda irekiko oposizio-lehiaketaren deialditik ateratzen den izangai-zerrendak lehentasuna izanen du, aldi baterako enplegua oposizio-lehiaketaren bidez egonkortzeko prozesutik ateratzen denaren aldean; eta azken horrek lehentasuna izanen du iraupen luzeko aldi baterako enplegua merezimendu-lehiaketaren bidez egonkortzeko salbuespenezko hautaprosesutik ateratzen denaren aldean.

4. Foru lege honetan aurreikusitako hautaprosesuak 2024ko abenduaren 31 baino lehenago ebatz daitezten ahalbidetze aldera, zilegi izanen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari egonkortze-prozesuetarako onesten diren epe-laburtze eta izapide-errazte erregelak aplikatzea.

**9. artikulua.** Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzea.

Bat. Aldatu egiten da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 247. artikuluen 2. apartatua. Hona testu berria:

“2. Lehiaketa horien xedea izanen da betetzea foru lege honetako 243.2, 244.2 eta 361.1.e) artikuluetan jasotzen diren lanpostuak, horiek hutsik daudenean. Lehiaketa-deialdia hiru urtean behin eginen da gutxienez, foru lege honetako 245. artikulua aipatzen duen gaikuntza lortzeko deialdia onetsi aurretik.

Foru Lege honen 356. artikuluan ezarritako araua onesten ez den bitartean, lehiaketa horietan honako hauek ere sartuko dira, ezertan galarazi gabe foru lege honen 361.1.e) artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa:

a) Deialdia onesten den unean administrazio zerbitzuen batasunetan hutsik dauden idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak.

b) 1.500 biztanle edo 3.000 biztanle baino gutxiagoko toki-entitateetan, hurrenez hurren, hutsik dauden idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak, baldin eta toki-entitate horiek beren plantilla organikoan lanpostu propioak badituzte deialdia onesten den unean.

c) Mankomunitateetan hutsik dauden kontu-hartzaile lanpostuak, baldin eta mankomunitate horiek beren plantilla organikoan lanpostu espezifikoa badituzte deialdia onesten den unean”.

Bi. Aldatu egiten da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 248. artikuluen 1. apartatuko a) letra. Hona testu berria:

“a) toki-entitateei jakinaraziko die zeintzuk diren lanpostu huts gisa edo hutsik egoteko moduko gisa jotzen diren idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak”.

**10. artikulua.** Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea aldatzea.

Aldatu egiten dira Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen bosgarren xedapen iragankorren 2.etik 5.era bitarteko apartatuak. Hona testua:

“2. Lehiaketa ebatzi eta gero, B taldeko gaikuntza baina A mailako titulazioa duten funtzionarioek

betetzen dituzten B taldeko kontu-hartzaile lanpostuak A taldean sartzen ahalko dira; aurretik funtzionario horiek mailaz igo beharko dute toki-entitate bakoitzaren esparrura mugatutako hautaprobak gaingaituta, horretarako jarraikiz Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 15.6 artikulua xedatzen duenari.

Maila-igoera horrek eta A taldeko kontu-hartzaile lanposturako izendapenak berekin ekarriko dute kasuko eginkizunetan aritzeko gaikuntza.

3. B taldeko funtzionario gaituek A taldeko kontu-hartzailearen gaikuntza lortua badute deialdi publikoan, txanda irekian, oposizio-lehiaketa sistemaren bidez, automatikoki sartuko dira A taldean, aurreko apartatuak aipatzen duen aurretiazko maila-igoeraren beharrik izan gabe.

4. Toki entitateek behar diren jarduketak egiten dituzte beren plantilla organikoak aldatu eta egokitzeke, kontu-hartzaile lanpostuak A taldean sartze aldera.

5. Iraungi beharreko egoera pertsonal gisa mantenduko dira B taldeko kontu-hartzaile lanpostuak, baldin eta horietan dihardutenak badira Nafarroako Foru Komunitateak gaituriko funtzionarioak, A mailako titulaziorik ez dutenak edo bigarren apartatuak aipatzen dituen mailaz igozteko hautaprobak gaingaituta ez dituztenak”.

#### **Xedapen indargabetzailea.**

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honek xedatuaren kontra doazen maila bereko edo baxuagoko xedapenak eta, bereziki, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen laugarren xedapen iragankorra eta bosgarren xedapen iragankorraren 6. apartatua.

#### **Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean bertan.

**ERANSKINA: IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE LANPOSTU HUTSEN HASIERA-ZERRENDA**

**Hasiera-zerrenda, hautaketa-sistematizat oposizio-lehiaketa daukaten Nafarroako toki-entitateetako idazkari-lanpostu hutsena (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikulua)**

IDAZKARITZA	BETETZEA	PROFILA	LANALDIA
Barillas, Monteagudo eta Tulebrasko udal batasuna	2.1		% 100
Donamaria, Urroz, Oiz eta Beintza-Labaiengo udal batasuna	2.1	Nahitaezkoa.	% 100
Longida, Artzi eta Orotz-Beteluko udal batasuna	2.1	Nahitaezkoa.	% 100
Zare, Eslaba, Lerga eta Ezporogiko udal batasuna	2.1		% 100
Sakanako Mankomunitatea	2.1	Nahitaezkoa	% 100

**Hasiera-zerrenda, hautaketa-sistematizat merezimendu-lehiaketa daukaten Nafarroako toki-entitateetako idazkari-lanpostu hutsena (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak)**

IDAZKARITZA	BETETZEA	PROFILA	LANALDIA
Ablitas	6. xedapen gehigarria		% 100
Allo	6. xedapen gehigarria		% 100
Altsasu	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Andosilla	6. xedapen gehigarria		% 100
Añorbe	6. xedapen gehigarria		% 100
Agoitz	6. xedapen gehigarria		% 100
Arakil	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Aranguren	6. xedapen gehigarria		% 100
Arbizu	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Areso	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Arguedas	6. xedapen gehigarria		% 100
Arroitz	6. xedapen gehigarria		% 100
Artaxoa	6. xedapen gehigarria		% 100
Aiegi	6. xedapen gehigarria		% 100
Azagra	6. xedapen gehigarria		% 100
Bargota	6. xedapen gehigarria		% 100
Baztan	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Berbintzana	6. xedapen gehigarria		% 100
Bertizarana	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Buñuel	6. xedapen gehigarria		% 100
Cadreita	6. xedapen gehigarria		% 100
Cárcar	6. xedapen gehigarria		% 100
Zarrakaztelu	6. xedapen gehigarria		% 100
Cascante	6. xedapen gehigarria		% 100
Castejón	6. xedapen gehigarria		% 100
Oltza Zendea	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100

Corella	6. xedapen gehigarria		% 100
Cortes	6. xedapen gehigarria		% 100
Deikaztelu	6. xedapen gehigarria		% 100
Eguesibar	6. xedapen gehigarria		% 100
Ergoiena	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Lizarra	6. xedapen gehigarria		% 100
Etxalar	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Fitero	6. xedapen gehigarria		% 100
Fontellas	6. xedapen gehigarria		% 100
Fustiñana	6. xedapen gehigarria		% 100
Galar	6. xedapen gehigarria		% 100
Goñi	6. xedapen gehigarria		% 100
Itza	6. xedapen gehigarria		% 100
Lakuntza	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Larraun	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Leitza	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Lekunberri	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Leotz	6. xedapen gehigarria		% 100
Lerin	6. xedapen gehigarria		% 100
Ledeá	6. xedapen gehigarria		% 100
Los Arcos	6. xedapen gehigarria		% 100
Luzaide	6. xedapen gehigarria		% 100
Martzilla	6. xedapen gehigarria		% 100
Mélida	6. xedapen gehigarria		% 100
Mendabia	6. xedapen gehigarria		% 100
Mendigorría	6. xedapen gehigarria		% 100
Murillo el Cuende	6. xedapen gehigarria		% 100
Nabaskoze	6. xedapen gehigarria		% 100
Olazti	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Ollaran	6. xedapen gehigarria		% 100
Oteitza	6. xedapen gehigarria		% 100
Azkoién	6. xedapen gehigarria		% 100
Gares	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Puiu	6. xedapen gehigarria		% 100
Ribaforada	6. xedapen gehigarria		% 100
San Adrián	6. xedapen gehigarria		% 100
Zangoza	6. xedapen gehigarria		% 100
Santakara	6. xedapen gehigarria		% 100
Sartaguda	6. xedapen gehigarria		% 100
Sesma	6. xedapen gehigarria		% 100
Sunbilla	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Deierri	6. xedapen gehigarria		% 100
Valtierra	6. xedapen gehigarria		% 100
Viana	6. xedapen gehigarria		% 100

Villatuerta	6. xedapen gehigarria		% 100
Atarrabia	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Esa	6. xedapen gehigarria		% 100
Zuñiga	6. xedapen gehigarria		34,20 %
Abartzua eta Lezaungo udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Urdazubi eta Zugarramurdiko udal batasuna	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Oibar eta Leatxeko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Allin eta Metautengo udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Anue eta Lanzko udal batasuna	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Araitz eta Beteluko udal batasuna	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Arantza eta Igantziko udal batasuna.	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Basaburu eta Imozko udal batasuna	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Auritz, Orreaga eta Erroko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Burgi, Bidankoze eta Gardeko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Desoio, Santsol eta El Bustoko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Espartza Zaraitzu, Sartze, Galoze eta Gorzako udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Esprontzeda, Torralba del Río eta Azueloko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Etxauri, Bidaurreta, Ziritza eta Etxarriko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Eulate, Larragoa eta Aranaratxeko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Ezkaroze, Orontze eta Jaurrietako udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Garinoain, Orisoain eta Untzueko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Garralda eta Ariako udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Goizueta eta Aranoko udal batasuna	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Hiriberri, Garaioa eta Aribeko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Iguzkitza, Lukin, Villamayor de Monjardín eta Barbaringo udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Izaba eta Uztarrozeko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Ituren eta Zubietako udal batasuna	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Txulapain eta Atezko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Lana, Mues, Piedramillera eta Sorladako udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Legaria, Etaiu, Oko eta Olexoako udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Mendaza, Nazar eta Mirafuentesko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Otsagabi eta Itzaltzuko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Orbaitzeta eta Orbarako udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Erronkari eta Urzainkiko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
San Martin Unx eta Uxueko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Ultzama eta Odietako udal batasuna	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Urraulbeiti eta Urraulgoitiko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100

Zabaltza eta Beraskoingo udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Gesalatz eta Jaizko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Barasoain eta Olorizko udal batasuna	6. xedapen gehigarria		% 100
Mañeruibarko Administrazio Zerbitzuen Elkarte (Zirauki, Mañeru, Artazu eta Girgillao)	6. xedapen gehigarria		% 100
Bakaiku eta Iturmendiko udalak	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Uharte Arakil, Irañeta eta Arruazuko udalak	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Aberin, Arellano eta Morentingo Langile Mankomunitatea	6. xedapen gehigarria		% 100
Itzagako Administrazio Zerbitzuen Mankomunitatea (Ibargoiti, Itzagaondoa, Lizoainibar-Arriasgoiti, Elo, Untzitibar, Urrotz)	6. xedapen gehigarria		% 100
Kodesko Administrazio Zerbitzuen Mankomunitatea (Aguilar Kodes, Cabredo, Genevilla, Lapoblación, Marañón eta Aras)	6. xedapen gehigarria		% 100
Izarbeibarko Hondakin eta Ur Mankomunitatea	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Malerrekako Mankomunitatea	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Erronkaribarko Batzarra	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Aezkoako Batzarre Nagusia	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Antsoain	8. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Bera	8. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Berriozar	8. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Faltzes	8. xedapen gehigarria		% 100
Funes	8. xedapen gehigarria		% 100
Lesaka	8. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Milagro	8. xedapen gehigarria		% 100
Erriberri	8. xedapen gehigarria		% 100
Orkoién	8. xedapen gehigarria		% 100
Zizur Nagusia	8. xedapen gehigarria		% 100
Doneztebe eta Elgorriagako udal batasuna	8. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Tebas-Muru Artederreta eta Biurrun-Olkozko udal batasuna	8. xedapen gehigarria		% 100
Beire eta Pitillasko Langile Mankomunitatea	8. xedapen gehigarria		% 100
Izarbeibarko Administrazio Zerbitzuen Mankomunitatea (Adios, Eneritz, Legarda, Muruzabal, Obanos, Tirapu, Ukar eta Uterga)	8. xedapen gehigarria		% 100



**Hasiera-zerrenda, hautaketa-sistematzat oposizio-lehiaketa daukaten Nafarroako toki-entitateetako idazkari-lanpostu hutsena. Txanda irekiko hautaprosesua, 6/1990 Foru Legekoa**

IDAZKARITZA	BETETZEA	PROFILA	LANALDIA
Ameskoabarrena	Irekia		% 100
Barañain	Irekia		% 100
Berriobeiti	Irekia		% 100
Burlata	Irekia		% 100
Cabanillas	Irekia		% 100
Gazteluberri	Irekia		% 29
Zizur	Irekia		% 100
Uharte	Irekia		% 100
Irurtzun	Irekia		% 100
Lodosa	Irekia		% 100
Miranda Arga	Irekia		% 100
Murillo el Fruto	Irekia		% 100
Noain (Elortzibar)	Irekia		% 100
Tafalla	Irekia		% 100
Alesbes	Irekia		% 100
Abaurregain eta Abaurrepeko udal batasuna	Irekia		% 100
Antzin, Abaigar eta Murietako udal batasuna	Irekia		% 100
Kaseda eta Galipentzuko udal batasuna	Irekia		% 100
Ezkabarte eta Olaibarko udal batasuna	Irekia		% 100
Elizagorri, Torres del Río eta Armañantzasko udal batasuna	Irekia		% 100
Eratsun, Saldias eta Ezkurrako udal batasuna	Irekia	Nahitaezkoa	% 100
Xabier eta Petilla Aragoiko udalen hitzarmena	Irekia		% 100
Zangoza Eskualdeko Mankomunitatea	Irekia		% 100

**Hasiera-zerrenda, hautaketa-sistematzat oposizio-lehiaketa daukaten Nafarroako toki-entitateetako kontu-hartzaile lanpostu hutsena (abendua 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikulua)**

KONTU-HARTZAILAZA	BETETZEA	PROFILA	LANALDIA
Tutera	2.1		100 %

**Hasiera-zerrenda, hautaketa-sistematzat merezimendu-lehiaketa daukaten Nafarroako toki-entitateetako kontu-hartzaile lanpostu hutsena (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak)**

KONTU-HARTZAILTZA	BETETZEA	PROFILA	LANALDIA
Andosilla	6. xedapen gehigarria		% 100
Antsoain	6. xedapen gehigarria		% 100
Arguedas	6. xedapen gehigarria		% 100
Burlata	6. xedapen gehigarria		% 100
Caparroso	6. xedapen gehigarria		% 100
Castejón	6. xedapen gehigarria		% 100
Cortes	6. xedapen gehigarria		% 100
Etxarri Aranatz	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Irurtzun	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Leitza	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Orkoién	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa B2	% 100
San Adrián	6. xedapen gehigarria		% 100
Valtierra	6. xedapen gehigarria		% 100
Viana	6. xedapen gehigarria		% 100
Doneztebe, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako udal batasuna	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Calibus Administrazio Zerbitzuen Elkartea (Ablitas, Barillas, Monteagudo eta Tulebras)	6. xedapen gehigarria		% 100
Cadreita eta Alesbesko udalen hitzarmena	6. xedapen gehigarria		% 100
Itzagako Administrazio Zerbitzuen Mankomunitatea	6. xedapen gehigarria		% 100
Izarbeibarko Administrazio Zerbitzuen Mankomunitatea	6. xedapen gehigarria		% 100
Erdialde-Mairagako Mankomunitatea	6. xedapen gehigarria		% 100
Sakanako Mankomunitatea	6. xedapen gehigarria	Nahitaezkoa	% 100
Ribaforada	8. xedapen gehigarria		% 100

**Hasiera-zerrenda, hautaketa-sistematzat oposizio-lehiaketa daukaten Nafarroako toki-entitateetako kontu-hartzaile lanpostu hutsena. Txanda irekiko hautaprosesua, 6/1990 Foru Legekoa**

KONTU-HARTZAILTZA	BETETZEA	PROFILA	LANALDIA
Barañain	Irekia		% 100
Berriozar	Irekia		% 100
Cintruénigo	Irekia		% 100
Mendabia	Irekia		% 100
Faltzes eta Mirandako elkartea	Irekia		% 100

## **Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko maiatzaren 26an egindako bileran, erabaki zuen Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Alderdi

Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2022ko maiatzaren 6ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzekoa.**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko maiatzaren 26an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Alderdi Sozialista eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu zuten, eta 2022ko maiatzaren 13ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2022ko maiatzaren 26an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkar-teak aurkeztu zuten, eta 2022ko maiatzaren 6ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/PRO-00010).

Maiatzaren 26an eta 2184 sarrera erregistroarekin, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkar-teak eskatu dute foru lege proposamen hori presako prozeduraz izapidetu dadin.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111. eta 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Xedatzea Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena presako prozeduraz izapidetu dadin.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epe bat hasiko da, 2022ko ekainaren 13ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkar-teak eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Foru Lege proposamena, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzekoa.

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2022ko maiatzaren 26an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Alderdi Sozialista eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu zuten, eta 2022ko maiatzaren 13ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. (10-22/PRO-00011).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111. eta 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Xedatzea Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzeko Foru Lege proposamena presako prozeduraz izapidetu dadin.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurralde Kohesiorako Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epe bat hasiko da, 2022ko ekainaren 13ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, 2021eko uholdeen ostean, lehen sektorearentzako laguntzen atzerapenari buruzkoa.***MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, 2021eko uholdeen ostean, lehen sektorearentzako laguntzen atzerapenari buruzkoa (10-22/POR-00199).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik atzeratu dira lehen sektorearentzako laguntzak 2021eko abenduko uholdeen ondotik?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

**Galdera, Lizarrako Remontival HLHIPeko antolaketa-arazoei eta baliabide faltari buruzkoa.***MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Lizarrako Remontival HLHIPeko antolaketa-arazo-

ei eta baliabide faltari buruzkoa (10-22/POR-00200).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Joan den maiatzaren 17an, Parlamentu honen Hezkuntza Batzordean, Lizarrako Remontival Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko hezkuntza-erkidegoaren ordezkariak informazioa eman zuten ikastetxe horrek jasaten duen egoerari buruz, baliabide eza dela-eta. Aipatu egoerak ahalegin bereziak eskatu dizkie profesionaleri, zeinek, familiekin elkarlanean, lortu baitute kalitatezko hezkuntza arreta eskaintzen, etsipenaren eta beren osasunaren narriaduraren trukean.

Ikastetxeak ikasleria oso anitza biltzen du, Lizarrakoa zein eskualdeko herrietakoa, ikastetxera eskola garraioaren zerbitzua erabiliz iristen dena. Ikastetxearen ezaugarriek eskatzen dute lanaldia eta ordutegia haiei doitu egotea, bai eta behar diren baliabideak ere, erantzun egokia emateko aniztasunari, behar diren giza baliabideekin eta antolakuntzakoekin, ikastetxearen hezkuntza aukerak aberasten baititu.

Hezkuntza Departamentuak 2022-2023 ikasturterako neurririk aurreikusi al du, Lizarrako Remontival HLHIPk antolakuntzaren zein baliabide ezaren aldetik dituen arazoei erantzuteko eta Lizarran eskola publikoko eskolatzea sustatzeko?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

**Galdera, 2022ko Irisgarritasun Plan Operatiboari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea 2022ko Irisgarritasun Plan Operatiboari buruz Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera (10-22/POR-00201).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztzen du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Noizko aurreikusten du kontseilariak betetzea Parlamentuak onetsitako mozio batek xedatua, non premiatzen baitu Nafarroako Parlamentuari 2022ko Irisgarritasun Plan Operatiboa igor diezaion, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen XIII. tituluaren II. kapituluaren xedatuari jarraikiz izapidetua izan dadin.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, Altsasuko Oinarrizko Osasun Eskualdeko osasun langile faltari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Altsasuko Oinarrizko Osasun Eskualdeko osasun langile faltari buruzkoa (10-22/POR-00202).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ostegunean, 2022ko ekainaren 2ko kontrolerako Osoko Bilkuran, ahoz erantzun dezan:

Altsasuko oinarrizko osasun eskualdean herritarrei arreta emateko medikuen eza jasaten ari dira duela hilabete batzuk.

Altsasuko osasun etxea prekarietate egoeran dago, osasun arloko profesionalen ezagatik. Osa-

sun etxe horrek Altsasu, Olazti eta Ziordiko 10.000 biztanle ingururi ematen die arreta.

Duela lau urte, dauden medikuak ez dira aski herritarrei arreta emateko. Izan ere, osasun etxe-ko atariko kartel batean honako mezu hau agertzen da: "larrialdiak baino ez dira hartzen"

Osasun Kontseilua hainbatetan bildu da, egoerarako konponbiderik aurkitu ezinik. Nafarroako Osasun Plataformak ere heldu dio arazo horri. Altsasuko jendea mobilizatu egin da; joan den asteazkenean 250 lagun inguru bildu ziren herriak merezi duen osasun arloko arreta duinerako baliabide gehiago eskatzeko.

Osasun Departamentuak behin baino gehiagotan iragarri du maiatzetik aurrera osasun etxeak 3 mediku edukiko dituela. Gaur egun, maiatzaren bukaeran, osasun arloko ezak bertan dirau.

Altsasuko Udalak aho batez onetsi du moztio bat Altsasu, Olazti eta Ziordiko oinarrizko osasun eskualdeak pairatzen duen prekarietate erabatekoa salatze eta konponbide azkarra eskatzeko.

Nola azaltzen ahal du Osasun Departamentuak Altsasuko oinarrizko osasun eskualdeak oraindik ez edukitzea osasun arloko behar beste langilerik bertako biztanleen beharrezanean erantzuteko eta zer neurri zehatz ezarriko du arazo larri hori konpontzeko?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an.

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero



## **Galdera, BAMEak Oinarrizko Osasun Laguntzara erakartzeko eta bertan iraunarazteko politikei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, BAMEak Oinarrizko Osasun Laguntzara erakartzeko eta bertan iraunarazteko politikei buruzkoa (10-22/POR-00203).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu Gobernuak lehendakari bezala, Nafarroan BAMEak Oinarrizko Osasun Laguntzara erakartzeko eta bertan iraunarazteko politikei buruz?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, gobernu zentralak erregaien eta elektrizitatearen prezioei buruz hartzen ari den erabakiek foru erkidegoaren diru-kutxari nola eta zenbateraino eragiten dioten jakitekoa.**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, gobernu zentralak erregaien eta elektrizitatearen prezioei buruz hartzen ari den erabakiek foru erkidegoaren diru-kutxari nola eta zenbateraino eragiten dioten jakitekoa (10-22/POR-00204).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Apirilaren 1ean indarrean sartu zen Gobernuak hartutako neurria, erregaien prezioa 20 zentimotan jaistekoa, herritarrei arintze aldera erregaien prezioaren igoera.

Beste alde batetik, Estatuko Gobernuak duela urte bat jada erabaki zuen argindarraren BEZa ehuneko 21etik jaistea ehuneko 10era, ulertuta lagunduko zuela elektrizitatearen eta gasaren prezioaren etengabeko igoerak eragin txikiagoa izateko herritarren ordainagirian.

Bi neurri horiek jada "irentsi" egin dituzte prezioen igoera berriek, eta horregatik honako galdera hau aurkezten da, ahoz erantzun dakion:

Nolako eta zenbateko eragina izaten ari dira Gobernu Zentralaren erabaki horiek Foru Erkidegoko diru-kutxan?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **Galdera, trafikoaren arloko eskumenaren transferentzia sinatzeari buruzkoa.**

*BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, trafikoaren arloko eskumenaren transferentzia sinatzeari buruzkoa (10-22/POR-00205).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Lurralde Politikako ministro Isabel Rodríguez andreak trafikoaren arloko transferentziari buruz egindako azken adierazpenak direla-eta, honako galdera hau aurkezten dugu:

Nafarroako Gobernuak datarik al du legegintzaldia amaitu baino lehen trafikoaren arloko eskumenaren transferentzia sinatzeko?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

## **Galdera, Nafarroak ondare historikoaren arloan jarduteko irizpideei buruzkoa.**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, Nafarroak ondare historikoaren arloan jarduteko irizpideei buruzkoa (10-22/POR-00206).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Legebiltzarren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer iritzi lehenesten du Departamentuak Nafarroako ondare historikoaren arloan jarduteko?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## **Galdera, adinekoendako egoitzak kreditatzeko eredu berriari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, adinekoendako egoitzak kreditatzeko eredu berriari buruzkoa (10-22/POR-00207).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuko lehendakariaren iritziz adinekoendako egoitzak kreditatzeko eredu berriak, Belarra andreak aurkeztu duen horrek, ukitzen al ditu Nafarroak gizarte zerbitzuen arloan dituen esku-men osoak?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, foruzainen erretiro-adina aurreratzeko administrazio-prozedurari buruzkoa.**

*JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, foruzainen erretiro-adina aurreratzeko administrazio-prozedurari buruzkoa (10-22/POR-00208).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da foruzainen erretiro-adina aurreratzeko administrazio-prozedura, 2022ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 22/2021 Legean aurreikusi zen bezala?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

## **Galdera, arrazoi ideologikoengatiko gorrotozko delituei aurre egiteko neurriei buruzkoa.**

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, arrazoi ideologikoengatiko gorrotozko delituei aurre egiteko neurriei buruzkoa (10-22/POR-00209).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer egiten du eta zer egingen du Nafarroako Gobernuak arrazoi ideologikoengatiko gorrotozko delituei aurre egiteko?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

## **Galdera, N-121 errepideko “Olabeko zeharbidea” izenez ezagutzen den zatiko lanak esleitzeko kontratua aldatzeari buruzkoa.**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, N-121 errepideko “Olabeko zeharbidea” izenez ezagutzen den zatiko lanak esleitzeko kontratua aldatzeari buruzkoa (10-22/POR-00210).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik aldatzen da, berriz ere kontu-hartzailetzaren txostenen aurka, N-121 errepideko “Olabeko zeharbidea” izenez ezagutzen den zatiko lanak esleitzeko kontratua, aurre egiten baitzaio obraren gainkostu bati, zeinak hirukoizten baitu Kontratuei buruzko Foru Legeak jadanik esleituta dagoen kontratu bat aldatu ahal izateko ezartzen duen gehieneko muga?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

**Galdera, 2/2022 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 23oa, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa, foru lege proiektu gisa izapidetzeari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, 2/2022 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 23oa, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa, foru lege proiektu gisa izapidetzeari buruzkoa (10-22/POR-00211).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan:

Prest al dago Gobernua onartzeko 2/2022 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 23oa, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa, behin berretsita Parlamentuaren Osoko Bilkuran, foru lege proiektu gisa izapidetua izan dadin, ahalbidetze aldera haren edukia hobetuko duten aldaketa adostuak sartzeari?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

**Galdera, egoitzen eta autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako zerbitzuen kreditatze eta kalitaterako irizpide komunak ezartzeko Espainiako Gobernuak proposaturiko akordioari buruzkoa.**

*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, egoitzen eta autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako zerbitzuen kreditatze eta kalitaterako irizpide

komunak ezartzeko Espainiako Gobernuak proposaturiko akordioari buruzkoa (10-22/POR-00212).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak 2022ko ekainaren 2ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer jarrera izan du Nafarroak egoitzen eta autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako zerbitzuen kreditatze eta kalitaterako irizpide komunak ezartzeko Espainiako Gobernuak proposaturiko akordioaren aurrean?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

## **Galdera, Siemens Gamesa Renewable Energy erosteko eskaintza publiko boluntarioari buruzkoa.**

**LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Siemens Gamesa Renewable Energy erosteko eskaintza publiko boluntarioari buruzkoa (10-22/POR-00213).
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aur-

kezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Siemens Energy-k aurreikusi du datorren irailaren erdirako erosteko eskaintza publiko boluntario bat aurkeztea Siemens Gamesa Renewable Energy-ri, kontrolatzen ez duen % 32,9aren gainean. Konpainia azaroan geratuko litzateke burtsatik kanpo. Enpresa-taldeak kostuen sinergia aipatzen du.

Siemens-ek murrizketak onartzen ditu Gamesan, "egituraren optimizazio" izenarekin.

Gure erkidegoan enpresak 1.818 langile ditu, azken gertakizun horiek kezkaz eta artegatasunez ikusten dituztenak. Horri buruz: Nafarroako Gobernuak asmorik al du esku hartzeko, bitartekari izateko egoeran, lanpostu guztiak mantentze aldera eta, baiezkoan, zer neurri zehatz hartuko du eta zer epetan?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

## **Galdera, ikus-entzunezkoen gordailu publiko bat sortzeko gaitutako aurrekontu-zuzkidurari buruzkoa.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, ikus-entzunezkoen gordailu publiko bat sortzeko gaitutako aurrekontu-zuzkidurari buruzkoa (10-22/POR-00214).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak ekainaren 2ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noizko eta zer neurritako aurrekontu-zuzkidura aurreikusten duzu ikus-entzunezkoen gordailu publiko bat sortzeko gaitutako partidarako?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## **Galdera, gazteria eta landa eremuari buruz berriki eginiko ikerketaren emaitzen gainekoa.**

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, gazteria eta landa eremuari buruz berriki eginiko ikerketaren emaitzen gainekoa (10-22/POR-00215).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak 2022ko ekainaren 2ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak gazteria eta landa eremuari buruz berriki eginiko ikerketaren emaitzei buruz?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

## **Galdera, langileen plantilla organikoetako lanpostuen ezaugarriak zehazteko udal autonomiari buruzkoa.**

*MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkeztutako galdera, langileen plantilla organikoetako lanpostuen ezaugarriak zehazteko udal autonomiari buruzkoa (10-22/POR-00216).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Inma Jurio Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak 2022ko ekainaren 2ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak udal autonomiaren gainera ezartzen ahal ote ditu langileen plantilla organikoetako lanpostuen ezaugarriak?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Inmaculada Jurio Macaya

## **Galdera, Foruzaingoaren barruan adierazpen faxistak berriz ere gertatzea ekidite aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Foruzaingoaren barruan adierazpen faxistak berriz ere gertatzea ekidite aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa (10-22/POR-00217).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteko parlamentari Mikel Buil García jaunak gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite andreak 2022ko ekainaren 2ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Zer neurri hartuko du Nafarroako Gobernuak, ekidite aldera Foruzaingoaren barruan adierazpen faxistak berriz ere gertatzea, haren ospea eta eredugarritasunaren kalterako?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García



## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko trenbide-konexioa dela-eta Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzkoa.**

### *UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko trenbide-konexioa dela-eta Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzkoa (10-22/POR-00218).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ekainaren 2ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2018an, Espainiako Gobernuko Sustapen Ministerioak "Kantauri-Mediterraneo trenbide-korridoreko Iruña-Euskal "Y"aren lotura zatiari buruzko informazio-azterlana" sustatu zuen, eta bertan irizpide anitzeko ikuspegitik (funtzionala, ingurumenekoa, aurrekontukoa) proposatu eta aztertzen dira loturarako aukera desberdinak (funtsean Ezkio-Itsasotik barrena –H aukera–, eta Gasteiztik barrena –V aukera–). Azterlan horren espedientea amaitu eta errematatu ez bazen ere, Ministerioak V aukeraren alde egiten zuen (Gasteiztik barrena), nabarmen merkeagoa baitzen.

Prozedura haren testuinguruan, Nafarroako Gobernuak, Garapen Ekonomikorako Departamentuaren bidez, alegazio bat aurkeztu zion infor-

mazio-azterlanari. Bertan azterketa tekniko sendoa egiten zen eta Ministerioak eginiko bi aukeren irizpide anitzeko azterketaren gabeziak agerian jartzen ziren, ingurumen- eta aurrekontu-eraginaren edota errentagarritasun ekonomikoaren arloetan. Horrenbestez, Foru Gobernuak zalantzan jartzen zuen Sustapen Ministerioaren azken balorazioa, zeinaren arabera V aukera (Gasteiz) zen onuragarriena.

Berrikusketa horren beharraz gain, eta V aukerari (Gasteiz) dagokionez, bazen inguruabar bat Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako Departamentuari kezka berezia piztu ziona, alegazioan jaso zen moduan, eta zen, Eusko Jaurlaritzak informazio-azterlanaren alegazio epean eginiko Gasteiz-Aramaio zatiaren ahalmenaren eta betetze-graduaren azterketaren ondorioen arabera, V aukera hori (Gasteiz) arriskuan egonen litzatekeela epe laburrean ahalmen nahikorik ez eskaintzeagatik.

Jakina denez, Garraioko ministro Raquel Sánchez andreak berriki adierazi du Diputatuen Kongresuan "uda aurretik" Nafarroako Foru Komunitateko Ciriza kontseilariarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Arriola sailburuarekin bilera egiteko asmoa duela, bi autonomia erkidegoen arteko etorkizuneko prestazio handiko trenbide-konexioaren ibilbidea zehazteko, baina ez dago jasota Estatuak arestian aipatu ohartarazpenei erantzunik eman dienik.

Hori dela-eta, ahozko galdera hau aurkezten da:

Nafarroako Gobernuak 2018ko jarrera bera al du Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko trenbide-konexiorako V aukera (Gasteiz) dela-eta? Hala bada, erantzunik jaso al du orduan eginiko alegazio garrantzitsuak direla-eta?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

## **Galdera, enpleguari buruz Nafarroako Gobernuak darabilen aurreikuspenen gainekoa.**

*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, enpleguari buruz Nafarroako Gobernuak darabilen aurreikuspenen gainekoa (10-22/POR-00219).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2022ko ekainaren 2ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil enpleguari dagokionez?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

## **Galdera, Expansión egunkarian duela gutxi argitaratutako DyB txostenari buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Expansión egunkarian duela gutxi argitaratutako DyB txostenari buruzkoa (10-22/POR-00220).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, zer dela-eta bilakatu da Nafarroa beren egoitza soziala Nafarroara aldatzen duten enpresen eta beste autonomia erkidegoetara eramaten dutenen arteko saldo okerrena duen erki-degoa, Expansión egunkarian duela gutxi argitaratutako DyB txostenaren arabera?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendaria hautatzen baita.**

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko maiatzaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Eurne Egiinoa Antxo andrea hautatu du Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendari, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko maiatzaren 17ko 7/2018 Foru Legearen 33. artikularekin bat.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzaren ebazpena, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendaria izendatzen baita.**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko maiatzaren 26an egindako bileran, behar den gehiengoarekin hautatu duenez, eta Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko maiatzaren 17ko 7/2018 Foru Legearen 33. artikularekin bat,

**EBATZI DUT:**

**Lehena.** Eurne Egiinoa Antxo andrea Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko

eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendari izendatzea.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Izangaiak beren karguaz jabetu beharko du izendapen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hilabetean.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## Nafarroako Parlamentuan aldi baterako enplegua egonkortzeko Erabakia, enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen esparruan.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Zerbitzu Orokorretako buruaren proposamena eta horri buruz legelari nagusiak eginiko txostena, eta horiek Langile Batzordeari helarazita –jasotzat eman ditu 2022ko maiatzaren 27ko erabakiaren bidez–, ERABAKI DA:

**1.** Identifikatzea abenduaren 28ko 20/2021 Legean jasotako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen menpe dauden Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organiko lanpostuak, erabaki honekin batera doan eranskinarekin bat.

**2.** Legelari nagusiari eta Zerbitzu Orokorretako buruari agintzea bidezkoak diren neurriak har ditzaten ezarritako epeetan egiteko 20/2021 Legean jasotako salbuespenezko kasuetan dauden lanpostu hutsen deialdiak.

**3.** Agintzea erabaki hau eta haren eranskina Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANSKINA

**1.** Hautaketa-sistematzat oposizio-lehiaketa daukaten lanpostuak (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikulua).

#### ZERBITZU JURIDIKOAK

Legelaria (A maila) Kopurua: 2

**2.** Hautaketa-sistematzat merezimendu-lehiaketa daukaten lanpostuak (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak).

#### IDAZKARITZA NAGUSIA

Prentsa Atala Atalburutza

Komunikazioko teknikaria (A maila) Kopurua: 1

#### ZERBITZU OROKORRAK

Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria (B maila) Kopurua: 1

Mantentze-lanetako teknikari-ofiziala (C maila) Kopurua: 1

Gelazaina (D maila) Kopurua: 1

#### NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA

Administraria (C maila) Kopurua: 1